

Patxi Azparren

Donostia, 1968. Antimilitarista.

Burujabetzaren aldeko
desobedientzialaria.

Autodeterminazioaren Biltzarren
(ABK) kidea iraganean. Maltzagako
Mahaiko kidea egun. Talde honek
Lizarra-Garaziko Akordioa sinatu
zuten eragile guztiak deitu ditu
-irailaren 12an- burujabetzaren
aldeko blokea sustatzeko.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

«Marko demokratikoa lortzeko ekimen bakarra konfrontazio politikoa da»

Lizarra-Garaziko Talde Iraunkorrean aritu zen Autodeterminazioaren Biltzarren (ABK) ize-
nean. 2000ko urrian espetxeratua izan zen hila-
bete batez, 18/98 sumarioan auzipetua.
2007an aske geratu zen, kargurik gabe.

Antropologia Sozial eta Kulturean lizen-
tziatua. Geografia eta Historian diplomatua.
Gurasoen Tapiztegian hasi zen lanean hamasei
urterekin. Azkeneko zazpi urteotan Pasaia-
ko AEK-ko Euskaltegian dihardu, arduradun
nagusi eta irakasle. Bertan solastatu gara.

**Hamaika urte joan dira Lizarra-Garaziko Akor-
diora sinatu zenetik. Etsipen garaia bizi dute subi-
ranozaleek. Zein da egoeraren zure balorazioa?**

Balorazioa ezkorra edo baikorra egin daiteke,
berau egiten duzun garaia-
ren arabera. Akor-
diora eraman gintuen garaia berealdikoa izan
zen. Hedabide ofizialek erakusten zuten gizar-

teaz harago, beste ekimenak ere bazirela eraku-
tsi genuen subiranozaleok. Gure herrian beste-
lako joera politikoak garatzea dagoela, alegia.
Ekimen politiko zibilarren alde ari garenok
Lizarra-Garaziko Akordiora geure izaera sar-
tzea lortu genuen. Txikia irudi badezake ere,
hori lorpen handia da. Egia da, egungo infor-
mazioak esaten digu gaizki gaudela, Akordioa-
ren garaian baino zatiketa handiagoa dagoela
abertzaleen artean. Baina ez gara ezkorrak,
ondo informatutako baikorrak baizik.

Dena dela, zaila dirudi baikor izateak.

Gu baikorrak gara, abertzaleen orduko inda-
rrak ez direla aldatu pentsatzen dugulako.
Herri honen gehiengoa marko juridiko-politi-
koa aldatzearen aldekoa da, eta gehiengoa ere
gatazka politikoaren espresio bortitzaren aurka
dago. Horiek ez dira aldatu, indarrak islatzeko

Herri mugimenduko espresio antimilitaristaren lekuko

Nola hasi zinen jarduera politikoan?

Gazte mugimenduan hasi nintzen, hamasei urterekin. Etxeak okupatu eta Gaztetxeak antolatzen genituen. Reagan eta Thatcher-ren garaiak ziren, haien aginduek eragin handia izan zuten gure belaunaldian. Gerra masiboren arriskua handitu zen eta horrek herri mugimendura hurbildu ninduen. Antimilitarismoak eta ezkerre ulertzeko beste moduek erakarri ninduten bereziki. Nerabea nintzela, Donostian zegoen talde antimilitaristan hasi nintzen laguntzen.

Soldadutza garaia etorri zen gero...

1987an, hemezortzi urterekin, Kontzientzia Eragozpen Kolektiboko kide egin nintzen. Amnistiatuak izan ondoren, zerbitzu sozialari uko egin nion eta intsumitu nintzen. Ezkerreko herri mugimendu subiranozalean jardun nuen. ABK, Desobedientzialariak, Zuzen eta Demoak taldeek hiru urtez elkarlana egin zuten garai hartan.

Lizarra-Garaziko garaia etorri zen gero.

Talde horiek antimilitarismotik zetozen. Mugimendu hark –Ajuria Eneko itunak jendartearen sortu zuen banaketa faltsuaren gainetik– hainbat gairi buruz gogoetatzea eta ekimenak plazaratzea lortu zuen. Ordurako beste egoera politiko baterako ari ginen prestatzen. 1996an jada desobedientziatzako ekin-tza txiki batzuk egin genituen, autode-terminazioaren aldekoak. Kanpaina sinbolikoak ziren, baina Lizarra-Garazi-ko Akordioa gauzatzean asko zabaldu ziren. Esparrua zabaldu eta gure ekimenek oihartzun handiago hartu zuten, ematen zuen indarkeriarik ezaren eta desobedientziaren bidez euskal gataz-karen espresioak eta ebazpena bera ere beste bide batzuetatik bideratu zitezkeela.

Desobedientzia zibilaren bidean aritu ziren taldeen lana ez da nagusitu. Etsipen puntu bat bizi duzue, agian.

Ez, ez erabatekoa. Herri honetan eta beste herrietan ere, oposizio politikoan ari diren taldeek nagusiki “indarkeria eza”ren bidez egiten dute politika, ez dute indarkeriarik erabiltzen. Esaterako, bai Palestinan bai hemen. Modu anto-latuan ari diren gizarte mugimendu gehienak indarkeriarik ezaren bidez manifestatzen dira, eta ekimenak hala-xe garatu ere. Beste kontua da talde guztiek ez dutela hori horrela barneratu-ta. Batzuek indarkeria erabiltzen dute beste biderik ikusten ez dutelako, edo bere buruarekin erosoago sentitzen direlako. Baina Euskal Herrian ere egi-ten den borroka eta lan gehiena indar-keriarik ezaren bitartez egiten da. Eus-kaldunon kasuan, talde batek indarkeria erabiltzen du [ETAK], estatuek ere indarkeria darabiltela ahaztu gabe. Noski, hauek protagonismo handiago dute, eta une politikoetan eragiteko indarra handia dute, baina horrek ez du esan nahi Euskal Herriaren borrokaren ardatzik nagusia denik.

moduak aldatu dira. Eta hori gertatu da Lizarra-Garazin ginenok zerbait gaizki egin dugulako, baina denok.

Iaz hamar urte bete ziren Akordiotik, aurtun hamaika. Zer da aldatu urte honetan?

Eragileen arteko zatiketak iaz baino handiagoa dela dirudi, baina iaz zegoen adostasun maila eta orain-goia antzekoa da. Akordioaren edu-kietan iaz baino aurreratuago gaude. Urtetik urtera gero eta nabarmenagoa da marko juridiko-politikoak ez duela balio –ez Hego-aldean ez Iparraldean–, eta berau aldatzeko herriari hitza eman behar zaiola. Gehiengoak oso barneratuta dauka burujabetza herriari hitza emanez lortuko dela. Eta honek balio du hiru eremuetako markoak aldatzeko: Iparraldekoa, Nafarroa Garaikoa eta EAEkoa. Burujabe-tzaren aldeko aldarrikapenek aurre-ra egin dute, eta hau erabakitze-ko eskubidearen bitartez lortuko da. Horretarako baina “bake” egoera iraunkorra behar da.

Prozesuan hiru lurralde administ-rati-boak sartuko direla aipatu duzu.

Hori da Akordioaren garaitik eman den beste aurrerapauso bat. Egungo prozesuak dinamikoa eta originala izan behar duela onartzen dugu denok, hiru eremu administ-rati-boetan abiadura ezberdinak behar ditue-la. Orduan, eragiletako gehienek uste genuen posiblea zela prozesua errit-mo berean gauzatzea, une berean eduki berberekin. Esperientziak era-kutsi digu hori ez dela posible, eragi-le guztiek onartzen dute tokian toki-ko egoerak kontuan hartu behar direla. Historiak ekarri dituen eremu administ-rati-bo bakoitzak bere ibilbi-dea egin beharko du, bere ezaugarri eta indar korrelazioaren arabera.

Artean Anoetako Proposamena eta Loiolako elkarriketak izan dira. Horietatik ere zerbait ikasiko zen...

“Gure lehentasunetako bat Batasunaren harreman politikoa erraztea da, baina argi edukita estatuen indarra gainditzeko estrategia bakarra ekimen politiko hutsa garatzea dela”

Anoetako Proposamenak negozi-azio prozesuan arlo militarra eta politikoa ezberdindu behar direla dio. Lizarra-Garaziko Akordioan hori nahasita zegoen: bakea eta lor-pen politikoak nahasi ziren. Anoet-akoak bi arloak bereizi behar direla adierazi zuen. Bortxa politikoaren espresioek sortutako egoera ETAK eta estatuek konpondu behar dute-la. Arlo politikoan aldiz, guk ez dugu ikusten negozi-azioa beharrez-koa denik. Gure helburuak kon-frontazioa demokratikoaren bitar-tez lortu behar dira. Euskaria Fundazioak garbi utzi du hori.

Euskaria Fundazioa eta Maltzagako Mahaia ari da burubelarri lanean egun. Argituiezaguz beren ibilbidea. Euskaria Fundazioa 1986 urtean sortu zen. Autodeterminazioaren Biltzarrak (ABK) ekimena sustatu zuen besteak beste. Baina ABK 19/98 sumarioan sartu eta gero deus-ztatu zen. Fundazioak jarraitu du legala delako, bere jardura abertzale guztien arteko lana bultzatzea izaki. Maltzagako Mahaia ekimen horren adierazlea da. Maltzagako aldarria proposatu ondoren –iazko apiril-ean

1000 sinadura baino gehiago bildu zuen— ekimena sustatzeko talde eragilea eratu zuen. Herri mugimenduko eta alderdi abertzale guztietako (EAJ, EA, Batasuna, Aralar eta AB) kideak daude modu pertsonalean.

Nolako esperientzia da herri mugimenduaren eta alderdien artekoa?

Neronek nahiago nuke, aukera balitz, askapen nazionalaren eta aldakuntza sozialaren prozesuak herri mugimenduak egingo balitu. Talde handian antolaturik askoz eraginkorra izango zen eta denok askoz erosoagoak egongo ginateke. Baina herri mugimendua ahul dago, urte hauetan guztietan protagonismo politiko nagusia alderdiek hartu dute. Zaila da alderdiekin aritzea, besteak beste, hauteskundeak etengabe direlako, eta alderdien lehentasuna hauteskundeetako emaitzak direlako. Ondorioz, alderdiak zenbat eta gertuagoak izan bata bestearengandik, hauteskunde garaian bereziki arazoak handiagoak dira. Zenbaitetan errazagoa daukate arerioen artean moldatzea, ondo-ondoan dauden alderdien artean baino. Hauteskundeak gero eta gertuago izan eta zailago dugu alderdiak elkarlanean jartzea.

Alderdi abertzaleek badute zer ikasia.

Bai. Espainiar nazionalismoa nagusiki bi alderditan lerrokatuta egon arren, bi joerak elkarrekin ari dira akordio estrategikoen bidez. Lotsarik gabe, hauteskunderi begira bereziki. Subiranozaleok aldiz gero eta zatituago gaude. Alderdi abertzaleek nazio estrategia komuna landu behar lukete egoera gainditzeko.

Ezker abertzale historikoa legez at dagoen bitartean, maniobra margentxikia da.

Espainiako Gobernuak ezker abertzalea joko politikotik at nahi du, guztiz indargabetua. Espainiarren nazio estrategiaren ardatza hori da. Hori ekiditeko ezinbestekoa da ezker abertzale ofizialak politikaren arlo guztietan normaltasunez parte hartzea. Noski, hori lortu ahala egokia litzateke borroka politiko hutsetara mugatzea. Gure lehentasunetako bat Batasunaren harreman politikoa erraztea da, baina argi edukita estatuen indarra gaindi-

“Arlo politikoan ez dugu ikusten negoziatzia beharrezkoa denik. Gure helburuak konfrontazio demokratikoaren bidez lortu behar dira. Euskaria Fundazioak garbi du hori”.

tzeko estrategia bakarra ekimen politiko hutsa garatzea dela.

Batasuneko zuzendaritza ia osoa espetxean dago...

Batasunarekin harremana gauzatzea delitua da. Oso zaila da, estatuek egoera oso zailean jarri dutelako. Baina Maltzagako aldarria egin zenetik Batasuneko kide ezagunek parte hartu dute ekimenean, Tasio Erkiziak besteak beste. Gurekin sinatu dute, argi eta garbi, giza eskubide guztiak errespetatu behar direla. Hori da lortu behar dugun jokalekua.

Polo subiranista bultzatuko duela iragarri zuen ezker abertzale ofizialak.

Euskaria Fundazioak nazio estrategian jardun dezake bakarrik, beste arlotan bakoitzak ikusi behar du nondik nora jo. Ondo informatutako baikorrak gara, eta badakigu zaila dela polo subiranista bideratzea. Dakiguna da, aldaketa ematekotan Lizarra-Garaziko Akordioaren hausnarketa landu beharko dugula denok. Eragile guztiek barneratu behar dute marko demokratikora eramango gaituen ekimen bakarra konfrontazio politikoa dela.

Horrek eragin behar du ETaren baitan.

Hirugarren saioa litzateke. ETaren su-etenaren behin-betiko izatea ezinbestekotzat al du Maltzagako ekimenak?

Guk prozesua abiatu dadin lanean dihardugu. Burujabetasunera eramane gaitzakeen prozesua indarrean jartzen badugu, ez dakigu ETak erantzun duen. Dakiguna da gure lana ETak armak behin-betiko utz ditzan bideratuta dagoela.

Herri mugimendua ahul da eta ETaren erabakia falta da.

Ez dakigu ETak zer pentsatzen duen, baina Euskal Herriak zer eskatzen duen garbi dago. Guk herri honen indarrean konfiantza dugu burujabetzaren bidean harago joateko. Gure logika politikoaren arabera posible da burujabetzaren aldeko gehiengo sozialak lortzea. Euskal Herriko hiru lurralde administratibotik gainera, leku bakoitzean gehiengo alternatiboak lortzeko moduak badaude, landu behar dira. Gehiengo alternatiboak gorpuzteko eta lanean hasteko hainbat bide urratu daitezke, prozesua abiatu ondoren eragile berriak sortu daitezke. ■

